# NARRATIBA

# Zure ondoan, bakarrik

**ZENBAKI LEHENEN BAKARDADEA**
Paolo Giordano. Itz: Koldo Biguri
Alberdania, 2009
323 orrialde. 18,50 euro

Iker ZALDUA




Bakardadea aukeratu egiten da ala berez etortzen da? Garbi dagoena zera da, izan badela, eta gurekin bizi dela edo gugan; apika, bereizketa hori da bakardadea bakartasunetik bereizten duena, gurekin edo gugan.

Horratx Paolo Giordanok proposatzen duen eztabaida. Horretarako, bi pertsonaia sortzen ditu, Mattia eta Alice, bakarrik izatera kondenatuak, bizimodu hori batak munduari uko eginez jaso du, besteak munduaren ukoa jasanez. Baina nola ukatzen da mundua? Eta nola ukatzen zaitu munduak? Hori da, kapituluz kapitulu kontatzen dena. Kapitulu batean jarrera bat eta bestean bestea, bi istorio ezberdin bailiran agertzen zaigu azalpena. Dena den, badirudi agertokiaren atzeoihalaren babesean ezkutaturik gidoilaria dagoela, istorioak bi txotxongilo bailiran hartuta, hariak mugitzen, eta gu, irakurleok, txotxongiloak noiz besarkatuko diren zain, bakartasuna eta bakardadea noiz batuko diren, esperoan, orririk orri irrika, jakin-mina, sabeleko korapiloa estutzen zaigula.

Aipatu bi protagonistak oholtza gainera igotzen direnean, gazteak dira oraindik, ia haurrak artean, eta bakoitzak bakarrik izateko bere modua agertzen du. Testuinguru horretan, haur-jolasen, maltzurkerien eta bekaizkerien zurrunbiloak harrapatzen ditu eta orduko gertaera bik eraikitzen dute bataren bakardade nahia, bakartasuna eta bestearen bakarrik izateko patua, bakardadea.

Michelak adimen-ezgaitasuna du eta anaiak zaintzen du, baina behin, bakarrik utzi eta betiko galduko du; ordutik erruaren zama bizkarrean hartuta, bakartasuna bilatzen du, penitentzia modura. Aliceri, aldiz, istripu batek sekula osatuko ez den zauri bat eragin dio, gorputzean iltzatutako marka batetik harago doana.

Narratzailea goran kokatzen da, goitik begiratzen du dena, gertatu ahala kontatzen ditu jazoerak, baina tarteka *feedback*ari ere uzten dio lekua, egoerak justifikatzeko, gauzen zergatien iturria gogora ekartzeko. Aurrez aipatu bezala, kapituluz kapitulu eraikitzen da liburua eta horrek erritmoa ematen dio liburuari eta, aldi berean, pausa, arnasa, gogoetarako beta.

Gogoeta eragiten baitute hainbat gertaerek, zurean eta nirean gertatzen direnak, zuk eta nik ikusi ditugunak. Haurtzaroko jolasek eta helduaroko jokoek, tartean Mattiaren matematikarako grina eta Aliceren argazkilaritza zaletasuna, gerora, ogibide bilakatzen dena, edo familiaharreman ahulak. Bide batez, merezi du familiari buruzko aipamen laburra egitea. Bi protagonistek, «munduari uko egin, munduaren ukoa jasan» esaldia irudikatzen dute giro horretan, bakoitzak bere esaldi zatiari dagokiona, betiere, harreman hotza eraikiz, liburuan bertan esaten denez, «inoiz ere egiten ausartu ez ziren hizketaldien ore gogortu baten gainean», eta bada, bitxikeria bat, ziur asko egileak berariaz barneratu duena, Aliceren gurasoek neskamea dute, Ekuatorekoa, Soledad izenekoa, ironikoa guztiz.

Eskuekin orrialdeak pasa eta ohartzeke 24 urte pasa dira, dena antzera dago, gidoilariak ordea, berriro hurbilarazten ditu txotxongiloak, galdutako arrebaren printza aitzakiatzat hartuta, beti bakarrik baina beti elkarren ondoan dantzatu direnak besarkarazten ditu, baina, berandu da, bakoitzak aspaldi egin du bere aukera, zenbaki lehenak dira, bakardadea eta bakartasuna ezingo dira inoiz bateratu.




## EL LÍMITE DE LA VIDA

**EL TIEMPO ENVEJECE DEPRISA**
Antonio Tabucchi
Anagrama, 2010
176 páginas. 16 euros

Un ex agente de la antigua RDA, que durante años se encargó de espiar a Bertolt Brecht, deambula sin meta por Berlín hasta llegar a la tumba del escritor para confiarle un secreto. En una localidad turística, un oficial italiano que ha sufrido radiaciones de uranio empobrecido en Kosovo enseña a una muchacha el arte de leer el futuro en las nubes. Un hombre que engaña su propia soledad contándose historias a sí mismo se convierte en protagonista de las mismas historias que se había inventado en una noche de insomnio... Historias cuyos personajes parecen empeñados en confrontarse con el tiempo.




## EL ARTE DE LA MEDICINA

**CATARSIS: SOBRE EL PODER CURATIVO DE LA NATURALEZA Y EL ARTE**
Andrzej Szczeklik | Acantilado, 2010
208 páginas. 20 euros

«He escrito este libro para mirar de cerca la profesión a la que me dedico y, tal vez, con la esperanza de despertar el interés del lector, ya que trato temas como la enfermedad y el sufrimiento, que, tarde o temprano, nos afectarán a todos». Así, en "Catarsis", este médico de profesión y experto en la «ciencia de los sentimientos», como dijera de él Seamus Heaney, habla del arte de la medicina a través de un texto que, a menudo, hace incursiones en el terreno de la poesía y de la música, lo que obedece a la convicción del autor de que la medicina y el arte tienen un origen común en la magia. El prólogo es de Czeslaw Milosz.

# KALERATU BERRIAK




## LOS SUEÑOS PERDIDOS

**FUERA DE JUEGO**
Michal Viewegh
Maeva, 2010
208 páginas, 18 euros

Como cada año, cinco amigos se reúnen para celebrar su amistad y recordar unas relaciones que se iniciaron en tiempos escolares y que se mantienen vivas ahora que rondan los cuarenta años. Saldan cuentas con su pasado y hacen el inevitable balance de la mediana edad: ¿realmente están llevando la vida que soñaban?



## SUPERSTICIONES, ENIGMAS Y VAMPIROS

**UN LUGAR INCIERTO**
Fred Vargas
Siruela, 2010
352 páginas. 19,90 euros

Nueva entrega de la "dama de la novela negra" –novela de enigmas, prefiere llamarlas la autora– del Estado Francés. En ésta, el comisario Adamsberg se encuentra en Londres cuando un macabro suceso trastoca sus planes. En su investigación, seguirá una pista de vampiros y cazadores de vampiros.




## UNA PASIÓN FASCINADORA

**VER A UNA MUJER**
Annemarie Schwarzenbach
Minúscula, 2010
76 páginas. 8,50 euros

En el lujoso *hall* de un hotel de Saint Moritz, en pleno invierno, se cruzan las miradas de dos mujeres. De ese instante, surge una pasión fascinadora que la protagonista relata en estas páginas tempranas de Annemarie Schwarzenbach (Zúrich 1908 - Sils, Engadina, 1942), escritas cuando tan sólo tenía 21 años.



## UNA MORDIENTE SÁTIRA

**LA HIJA DE ROBERT POSTE**
Stella Gibbsons
Impedimenta, 2010
357 páginas. 22,76 euros

Ganadora del Prix Femina 1933, esta divertidísima novela narra la historia de Flora Poste, una joven de educación «cara, deportiva y larga» que, tras quedarse huérfana, es acogida por unos parientes rústicos y asilvestrados, en la Inglaterra profunda. Allí intimidará con una galería de extraños y taciturnos personajes...